

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### IDAZKARITZA NAGUSIA

**Foru Gobernu Kontseiluak 2023ko urtarrilaren 17koa ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena**

– **Foru dekretua:**

**OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA**

Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2023 Foru Dekretua, urtarrilaren 17koa. Onestea 2023ko ekitaldian egingo diren eskualdaketei Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan eta Sozietateen gaineko Zergan aplikatu beharreko eguneratze koefizienteak.

– **Erabakiak:**

**OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA**

Foru Gobernu Kontseiluaren 2/2023 Erabakia, urtarrilaren 17koa. Onestea foru sektore publikoko 2023ko ekitaldirako urteko kontratazio plana.

Foru Gobernu Kontseiluaren 3/2023 Erabakia, urtarrilaren 17koa. Onespena ematea "Erakunde Konpromisoak" izeneko aurrekontu partidak "Baimendua eta Xedatua" fasean jartzen dituen espedienteari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 4/2023 Erabakia, urtarrilaren 17koa. Onespena ematea 41/2022 kreditu gaitzearen espedienteari, 65.380,01 euroko zenbatekoaz, funtsez hornitzeko "Hiri Hondakinen Gaikako Bilketaren Kudeaketa" partida, Ingurumen eta Hirigintza Sailak hala eskatuta.

**BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA**

Foru Gobernu Kontseiluaren 5/2023 Erabakia, urtarrilaren 17koa. Onestea esleitu dakiola Etra Norte SA-Etralux SA ABEari, 2.648.190,27 euroan (BEZa barne) eta 3 urteko gauzatze epearekin, "2023 eta 2025 bitartean instalazio elektrikoak mantentzeko, bide segurtasuneko datuak ustiatu eta Errepideak Kontrolatzeko Zentroa kudeatzeko, errepidea ustiatzeko elementuak hobetzeko eta berritzeko jarduketak egiteko, eta foru sareko errepideetako edukiera plana planifikatu eta gauzatzeko zerbitzua".